

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
76	79	101	178
positibo berri	hildako	positibo berri	hildako
1.500	345	3.073	1.399
positibo guztira*	ospitalizatuta	positibo guztira	ospitalizatuta
*Hernanin 33 Astigarragan 7		Sendatuak: 3.405 EAEn; 334 Nafarroan.	

Azokak martxan jarraitzen du elikagai postuekin, baina asteazkenean egingo da

Ostegun Santua datorrena, jaieguna, eta, beraz, osteguneroko azoka asteazkenean egingo da Urbieta kalean. Elikagai postuak bakarrik jartzen dira, Koronabirusa dela-eta.

HERNANI AZOKA

Postu gutxi ikusi daitezke Urbieta kaleko osteguneroko azokan, baina batzuk etortzen dira, eta horri esker, martxan jarraitzen du azokak Hernanin, berrogeialdian ere. Elikagaien postuak bakarrik jartzen dira, osteguneroko.

Dena den, aste honetan jaieguna izango da osteguna, Ostegun Santua, eta horregatik, asteazkenean jarriko dira postuak.

Hainbat herritan, bertan behera

Azoka jartzen dutenek diote herri batzuetan mantendu direla, eta jendea pixkanaka ari dela gerturatzen, irekita segitzen du-



Aste honetan asteazkenean jarriko dira azokako postuak; soilik, elikagaienak. Bideoa: 'kronika.eus'

tela jakitean, nahiz eta norma-lean baino jende gutxiago ibili.

Hala ere, hainbat herritan bertan behera geratu dira, eta Hernanira etortzen direnek leku gutxiago bisitatzen dituzte; dagoeneko ez dute posturik jartzen Errenterian, Tolosan, Eibarren, Azkoitian... bai, ordea, Arrasaten, Bergaran edo Gernikan.

Neurriak zorrozuta, azokan ere

Normaltasunez lan egiten saiatzen badira ere, Koronabirusarekin ez kutsatu eta pandemia ez zabaltzeko neurriak hartu dituzte, ezinbestean. Dena den, «beldurrik ez, errespetua» sentitzen dutela diote. Horrela, batzuek maskarilak erabiltzen

dituzte eskularruez gain; beste batzuek eskularruak bakarrik. Hori bai, denek eskuak ondo garbitzen dituzte, dirua ere bai, eta distantziak mantentzen dituzte.

Bezeroen artean ere, antzeko neurriak hartzen dituzte gehienek. Neurriekin, baina azokara gerturatzen segitzera animatu dituzte. **K**

«Pozik» EAJ, «Bilduk dekretua zuzendu duelako»

Jeltzaleek eskatua zioten udal taldeari txakurrak paseatzeko denbora eta kantitatea mugatzen zituen neurriak bertan behera uzteko.

ASTIGARRAGA EAJ-PNV

Alkatetzak berrogeialdirako animalien ateraldiak arautzen zituen dekretua bertan behera utzi duelako pozik agertu da EAJ. «Alderdi jeltzalea ez zegoen udal taldeak jarritako neurrien jakinaren gainean, eta neurriak bertan behera uzteko eskaera erregistratu zuen. Ordu batzuk

geroago, EH Bilduk atzera egin eta dekretua bertan behera utzi zuen», azaldu du.

Dekretu hori apirilaren 1ean jarri zen martxan, eta «24 ordu eskaseko ibilbidea izan zuen. Maskoten jabeentzako gehiegizkoa izateaz gain, eta EAJk bertan behera uzteko egindako eskaeran adierazi zuen bezala, udaletxeek ez dute konpeten-

tziarik berrogeialdirako animalien ateraldiak erregulatuzeko».

Era berean, jeltzaleek salatu dute «EH Bilduk, beste behin ere, oposizioa kontuan hartu gabe eta herriko bizilagunetako asko nahita kaltetuz» hartu zuela erabakia. «Dagozkion konpetentziak gauditu ditu, eta presioak gain hartu dio».

«Kontzientziazkoa, inposizioaren orde»

Berrogeialdian zehar maskotekin eduki beharreko portaeraren inguruan herritarrek «kon-

tzientziatu» egin behar direla aldarrikatu du EAJk. «Beste jabeekin kontaktua izatea saihestu behar da, jende gutxi ibiltzen den gune eta ordutegiak aukeratu, eta txakurra lotuta eraman, hain zuzen, kontaktua saihesteko».

Dena den, «elkarbizitzarako neurri orokorrak astigartar guztientzako dira. Denok, animalia jabe izan edo ez, gure aldetik jarri behar dugu ohiz kanpoko egoera hau ahalik eta azkarren bukatu dadin», gehitu du oposizio alderdiak. **K**

Ikastaroa, bideo eta argazkietarako

HERNANI GAZTETU HERNANI

Apirilaren 14 eta 15ean InShot aplikazioarekin mugikorretik bideoak editatzen ikasteko aukera izango dute 12 eta 17 urtekoek, online, Skype bidez, doan, eta hilaren 16 eta 17an, SnapSpeed aplikazioarekin argazkiak editatzen ikasteko, 12-15 urtekoek. Izen-emateak gaur bukatuko dira: <https://labur.eus/Cevrc>.

Programazioa, opor egunetarako

ASTIGARRAGA GAZTELEKUA

Aisialdirako tartea eskaintzen jarraitzen du Gaztelekuak, konfinamendu egoera honetan ere. Skype, whatsapp eta instagram bidez hezitzaileekin harremanetan jartzeko aukera dago. Era berean, egunero ekintza bat proposatu dute; gaurko, Black Stories.

Animoak, bideoan

GOIZUETA KORONABIRUSA

Besteentzako lanean ari direnei eskerrak emateko, bideo bat egin zuten larunbat gauean herritarrek. Lehenago ere, beste bat egin zuten, berrogeialdia nola pasatzen ari diren erakutsi eta animoak emateko. Ikusteko: Kronikan eta Goizuetako Udalaren facebooka.

Odol ematea, bihar

HERNANI ODOL EMAILEAK

Ez ohiko egoera honetan ere, izango da odola emateko aukera, baina ambulatorioan beharrean, Goiz Eguzkin; bihar, 18:00etatik 20:30etara ariko dira.

Amherrek, laguntza

HERNANI AMHER

Egun hauetan laguntza behar duen jendea dagoela-eta, Amherrek denen eskura jarri ditu 671 116 414 eta 667 710 928 telefonoak. Elikagaiak eman edota lan, etxebizitza, psikologia eta bestelako alorretako laguntza emateko prest daude.

KRONIKAK PUBLIZISTA BEHAR DU ORDEZKAPEN BATERAKO

Bidali zure CV-a, apirilaren 14ra arte:
kronika@kronika.eus

Dobera Euskara Elkartearen Larramendi 11 behea 20.120 HERNANI

ESKATZEN DA:
/ Euskerara ondo menperatzea, hitzez zoin idatziz.
/ Lantaldean aritzeko gaitasuna.
/ Iniziatiba eta enpatia.
/ Publizitate edo marketing ikasketak izatea.

ESKAINIKO ZAJO:
/ Kontratu: sei hilabetetarako.
/ Eginkizunari dagozkion soldata eta lan baldintzak.

BALORATUKO DA:
/ Urumea bailara ezagutzea.
/ Doberako bazkide izatea.
/ Tokiko hedabideak ezagutzea.
/ Publizista lanetan esperientzia.
/ Maketatze eta diseinu programen ezagutza.
/ Sare sozialak menperatzea.

Baldintzak betetzen dituztenez artean probak egin ondoren bat aukeratu da.

TILIN * TOLON

BELAR DENDA TERAPIA NATURALAK

Kontsultak bertan behera abisu berria jaso arte

Txirrila, 10 HERNANI

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu? Deitu Orbegozora

24 orduko tlfnoa.
943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com

• Zerbitzu partikularrak • Erresketak eta asperu etxeekin • Lekualdatzeak • Beilatokiak • Eskelak, korak...

HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URBIETA GOIZUETA

Zentrala Latsunbe 7, Hernani

EGURDIA **GAUR** Giro motel eta umela izango da. Euria egingo du denean, batez ere, goizean. Arratsaldean atertzera egingo du. Haizea pixkanaka iparrera aldatuko da, eta hoztu egingo du. **Min.11° / Max.15°**

BIHAR Lainotuta egongo da zerua, eta euri pixka bat egin dezake oraindik. Dena den, atertu eta argitu egingo du pixkanaka, eta tenperatura zertxobait epelduko da. **Min.10° / Max.17°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** Castilla Urbietara, 7 (Hernani) **943 552941** Gaez: Urrutia Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



Materiala jaso du Udalak, langileak babestu eta zerbitzuak indartzeko

Electroquímica Hernani eta Adarra industria hornitzaileak lagundu dute, besteak beste. Hondakin bilketara, kale garbiketara eta adinekoen egoitzara bideratu da.

HERNANI UDALA

«Ez ohiko beharrak sortu dira Udaldean», azken aste hauetan bizi dugun «egoera larria dela-eta». Gauzak horrela, «babesteko materiala ezinbestekoa» dela adierazi du Udalak, «udal langileek behar horiek segurtasunez bete ahal izateko».

Hori horrela, eskerrak eman ditu materiala jaso duelako.



Kale garbiketarako 600 litro sodio hipoklorito jaso ditu Udalak.

Maskarak eta sodio hipokloritoa, hiru zerbitzu indartzeko

«Eskaera izugarri haunditu dela-eta, ez da betere erraza langileak babesteko behar diren ekipo guztiak lortzea», adierazi du. Horregatik, eskerrak eman dizkie laguntza eman dioten enpresei.

«Herriko zenbait enpresatarajo zuen Udalak material bila, eta Electroquímica de Hernani enpresak babesteko 700 maskara eman dizkio Udalari. Horrez gain, kaleko desinfekzioa egite-

ko erabiltzen den 600 litro sodio hipokloritorekin ere hornitu du Udala».

Bestalde, «Adarra industria hornitzaileak, haiek ere babesteko materialaren eskaera egin behar zutela aprobetxatuta, eskaera bateratua egitea eskaini zion Udalari, materiala errazago eta bizkorrago eskuratzeko».

Material hori guztia «behar den zerbitzuetara bideratzen» ari dela argitu du Udalak. «Bereziki, adinekoen egoitzara, hondakin bilketara eta kale garbiketara».

Konposterako etxoletan, lan gehiago

Hain zuzen, Udalak azaldu du lorezaintza arloko lanak egiteko kontratatutako Goroldi enpresak «oinarrizko zerbitzuak soilik» egingo dituela aurrerantzean, besteak bertan behera utzita; hondakin organiko gehiago sortzen arienez, eta konposterako etxolak azkarragoa betetzen direnez, lan-talde hori indartu da. «Bost langile ari dira astean bi egunez, etxolak husten, bolteatzen, egituratzailea botatzen eta desinfektatzen». **K**

Hitzaldia online etzi, itxialdia eta seme-alaben inguruan

Konfinamenduak nola eragiten dien azalduko du Nerea Mendizabal hezitzaileak. Galderak egiteko aukera ere izango da.

HERNANI HEZKUNTZA

Udalak antolatuta, hitzaldia emango du etzi, asteazkenean, Nerea Mendizabal, komunikazio ez bortitzeko hezitzaileak. Gizarte hezkuntzan diplomaduna eta psikopedagogian lizentziaduna ere bada, eta haur masaje hezitzailea.

Hitzaldia internet bidez emango du, apirilaren 8an, asteazkena, 18:30etan hasita, euskeraz nahiz gaztelaniaz. Hi-

tzaldia nola jarraitu, Udaleko webguneko (www.hernani.eus) agendaren atalean azalduko da.

Jaioberrietatik hasi eta 12 urtera arteko haurren inguruan

Hitzaldia haurren guraso eta arduradunei zuzendutakoa izango da, «orientazioa eskaini eta zalantzak argitzeko», Udalaren esanetan.

Mendizabal jaioberrietatik hasi eta 12 urtera arteko haurren inguruan ariko da. Besteak beste, azalduko du konfinamenduak nola eragin diezaikeen haurrei eta haien familiei. Izan ere, «egoera berri bat bizitzeko ari gara, eta heziketari lotutako zalantza asko sortzen dira, adin-etapa bakoitzean ezberdinak, gainera», argitu du Udalak.

Horrez gain, egoera honek sortu ditzakeen albo-ondorioak nola saihestu edo horiei aurre nola egin ere azaldu du.

Ordu erdiko azalpenen ondoren, galderetarako tartea

Nerea Mendizabalek zuzenean emango du hitzaldia, online, eta ordu erdi inguru iraungo du. Hitzaldia bukatuta, guraso eta interesatuek galderak egiteko aukera izango dute. Mendizabalek zuzenean erantzungo ditu.

Baliabide gehiago behar izanez gero, Mendizabalek bere webgunean, www.nereamendizabal.eus, hainbat argibide eman ditu, eta lagungarriak izan daitezkeen gomendioak ere bai, webgune horretako blogaren atalean. **K**

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskola jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† **JOSEFINA CÁTEDRA GALDÓN**
ANDREA
(Paulino Hernándezen alarguna)
Herenegun hil zen, 90 urte zituela Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian bego -

Anai-arrebek, ezkon anai-arrebek, ilobek, lehengusuek eta gainerako ahaideek jasotako doluminak eskertzen dituzte, eta haren arimaren alde otoitz egiteko eskatzen dute.

Egungo osasun-alerta dela-eta, hileta elizkizuna ahal denean egingo da.

Hernanin, 2020ko apirilaren 6an

☀️ **JOSEFINA CÁTEDRA GALDÓN**
Izaba maitea,
beti gogoratuko zaitugu
gure artean, maitasunez
eta eredu izango zara
gu guztiontzat.

NURIA, MANU, MAIDER ETA IKER

Hernanin, 2020ko apirilaren 6an

☀️ **JOSEFINA CÁTEDRA GALDÓN**
Ez ditugu ahaztuko
elkarrekin igarotako egunak,
agur esan dizugu baina gure bihotzean
beti izango zaitugu gogoan.

**MARI CARMEN, MARI KARMEN
ETA LOREDANA ZAINZAILA**

Hernanin, 2020ko apirilaren 6an

† **MARIA ROSARIO ANABITARTE ZAPIRAIN**
ANDREA
(Benito Muñozaren alarguna)
Atzo hil zen, 90 urte zituela

- Goian bego -

Seme-alabak: Rafael eta Nekane, Kristina eta Iñaki, Rosi, Teresa eta Jose Miguel, Koro eta Josemi, Jose Ramon, Garbiñe eta Mikel; bilobak: Oier, Olaia, Jon, Aitor, Mikel, Leire, Iris, Ana, Markel, Naroa eta Ander; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuek eta gainerako ahaideek.

Familiak jasotako doluminak eskertzen ditu, eta gaur egungo egoera dela-eta, agurra senitarrean egingo dela adierazten du. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2020ko apirilaren 6an

☀️ **MARIA ROSARIO ANABITARTE ZAPIRAIN**
Garbiñe, zure ondoan beti,
eta orain ere bai.
Besarkada handi bat.

**ZURE LAGUNAK: IDOIA,
JONE G., JONE L. ETA ZIKU**

Hernanin, 2020ko apirilaren 6an

IRAGARKI MERKEAK

ONDDI AKADEMIAN streaming bidezko klaseak eskaintzen ditugu DBH eta Batxilergoan.
Info gehiago: **688719571** edo onddiakademia@gmail.com
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**